# ALDERDI BERRIAK

2004ko ABENDUA • 2.zenbakia



# EUSKADIK BEHAR ZAITU

EAJ PNV

"GURE HIZKUNTZA ETA KULTURA, GURE GIZARTE SEGURANTZA. GURE AGINTE JUDIZIALA, GURE KIROL SELEKZIOAK. GURE ESKUBIDE ETA GURE EGINKIZUN DIRA".

"PORQUE EL PROPIO ESTATUTO DE GERNIKA LO LEGITIMA. PORQUE SU CULMINACION SOLO TENDRA LUGAR EN AUSENCIA DE LA VIOLENCIA. Y PORQUE SERA LA SOCIEDAD VASCA QUIEN, MEDIANTE CONSULTA POPULAR, TENGA LA ULTIMA PALABRA"

www.eaj-pnv.com

# ALDERDI BERRIAK

ERREDAKZIO TALDEA
EQUIPO DE REDACCIÓN
Luis Aranberri "Amatiño"
Jose Unzueta
Saioa Zubizarreta
Iñaki Bernardo

ARGAZKIAK
FOTOGRAFIAS
Ángel Ruiz de Azúa
Amatiño
Eduardo Charlot
Artxiboa

**ALDERDI BERRIAK** es una revista trimestral publicada por la Dirección de Comunicación del Euzkadi Buru Batzar.

**ALDERDI BERRIAK** Euzkadi Buru Batzarraren Komunikazio Zuzendariak argitara emandako aldizkari hiruhilabetekaria da.

## 2004ko ABENDUA

# AURKIBIDEA
# SUMARIO











HILABETE PIL-PILEAN
UN MES INTENSO 03

JOSU JON IMAZ:
"SABINO ARANA DA, EUSKAL SEN ABERTZALEAREN SORTZAILEA"
JOSU JON IMAZ:
"SABINO ARANA, ES EL FORJADOR DE LA CONCIENCIA NACIONAL VASCA" 04

EUROPA, EAJren ETORKIZUNERAKO HELBURU ESTRATEJIKOTZAT
EUROPA COMO ESTRATEGIA DE FUTURO DE EAJ-PNV 06

5 BATZOKIK MENDEURRENA OSPATU
5 BATZOKIS CENTENARIOS 08

SASETA GOGOANGARRIA
HOMENAJE A SASETA 10

EUSKADIK BEHAR ZAITU
EUSKADI TE NECESITA 12

ESTATU ANITZA EZ EZIK, NAZIOANIZTASUNA ALDARRIKATZEN DU GALEUSCAK
GALEUSCA APUESTA POR UN ESTADO PLURINACIONAL, ADEMAS DE PLURAL 16

SAREAK ELKARTUKO DITU BATZOKIAK
LA RED UNIRÁ LOS BATZOKIS 18

SELEKZIOAK BURUAN ETA IBILI MUNDUAN
SELECCIONES DEPORTIVAS, UNA VIEJA REIVINDICACION 20

FORMAZIO KURTSOAK
CURSOS DE FORMACION 22

LABURRAK
BREVES 23

# EDITORIALA

## Un mes intenso

Desde que el 25 noviembre, aniversario del fallecimiento de Sabino Arana, hasta que este ejemplar de Alderdi Berriak llegue a manos de los afiliados, EAJ-PNV ha vivido un mes intenso.

En el aniversario de Arana, el presidente del EBB, Josu Jon Imaz, remarcó la importancia de la memoria y coherencia históricas en el devenir de este partido. Nada es casual ni arbitrario. Ni cinco de nuestros batzokis conmemoran su centenario por casualidad, ni la Asamblea Nacional acordó arbitrariamente nuestro apoyo al nuevo Tratado Constitucional Europeo, ni surge la Fundación Galeuscat por generación espontánea, ni somos fundadores del Partido Demócrata Europeo por azar.

Es ese mismo devenir histórico el que nos lleva a homenajear a los gudaris, representados este año en la ya legendaria figura de Saseta, como a actualizar reivindicaciones tan sentidas como son las selecciones deportivas.

El mismo devenir que nos va a requerir mayor formación, acceso a las nuevas tecnologías y, al fondo, el Nuevo Estatuto Político.

EUSKADIK BEHAR ZAITU sigue siendo, sin duda, algo más que un eslogan.

## Hilabete pil-pilean

Azaroaren 25etik hona, Sabino Aranaren heriotzaren urteurrenetik Alderdi Berriak aldizkariaren ale hau jelkideen artean zabaldu arte, Euzko Alderdi Jeltzaleak pil-pilean bizi izan du azken hilabetea.

Aranaren urteurreneko hitzaldian zehar, Josu Jon Imaz EBBren lehendakariak gure alderdi honen nondik norakoaren memoria eta koherentzia historikoak azpimarratu zituen. Ezer ez da gero ustebako edo edozelango. Gure bost batzokik ez dute euren mendeurrena ustekabean ospatu, Aberri Batzarrak ez du Europar Konstituzio Itunaren aldeko jarrera edozelan erabaki, Galeuscat Fundazioa ez da berez sortu eta ez gara bat-batean Europako Alderdi Demokrataren sortzaile.

Nondik norako historiko berberau da gudariak omentzen jartzen gaituena, aurten Kandido Saseta zenaren gomutaz hain zuzen ere, eta nondik norako berberori da behin eta berriz kirol selekzioen aldarria gogora ekartzen diguna.

Nondik norako berberorrek gogorarazten digu prestakuntzaren beharra, teknologia berrien garrantzia eta baita aurrez aurre dugun Estatutu Politiko Berria ere.

**EUSKADIK BEHAR ZAITU** leloak lehengo lepotik jarraitzen du, oraindik ere.



# JOSU JON IMAZ:

# "SABINO ARANA ES EL FORJADOR DE LA CONCIENCIA NACIONAL VASCA"

El presidente del Euzkadi Buru Batzar de EAJ-PNV, Josu Jon Imaz, aseguró en el acto del 101 aniversario del fallecimiento de Sabino Arana en Bilbao que "esta persona fue el forjador de la conciencia nacional vasca que desde sus tiempos ha venido manteniéndose en este pueblo y que ahora seguimos nosotros con el mismo entusiasmo que Arana".

Imaz, inició su intervención recordando unas palabras de Xabier Arzalluz en 1995 en las que afirmaba que "el PNV, como toda obra humana, ha tenido sus grandezas y sus miserias, sus heroísmos y sus convulsiones, escisiones, miedos, abandonos... Sin Sabino y sin su Partido no podrá escribirse ya la historia vasca".

El presidente del EBB continuó su discurso haciendo referencia a la construcción de Euskadi "primero, porque somos una nación. Una nación compuesta de los herrialdes de Xuberoa, Baxenabarra, Lapurdi, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia y Navarra. Segundo, porque las naciones tienen derecho a construirse respetando la libre decisión de sus ciudadanos. Y tercero, porque este país tiene voluntad firme de lograr esa vida propia".

"Quiero recordar las principales ideas-fuerza que nos transmitió Arana", indicó Imaz. "La primera, aquella que nos hace abertzales: Euskadi es una nación. La segunda fue su humanismo y su entronque con las corrientes modernas de su época y la tercera es el Sabino Arana apasionado activista e instigador".

El presidente del EBB recordó que a Arana "se le acusaba de racista, pero sus contemporáneos no resistían la comparación con el humanismo de Sabino. ¿Quiénes le acusan de racista? ¿Los seguidores de un Cánovas del Castillo que en aquella época defendía la esclavitud en Cuba o escribían sobre la inferioridad de los africanos?".

Josu Jon Imaz también se refirió a José Antonio Agirre y a Manuel de Irujo como seguidores de las ideas de Arana. "Son la verdadera herencia de Sabino. Para Aguirre y los suyos el dilema planteado no era el de una Europa u otra, sino el de la Europa de los Estados o ninguna. Y aceptaron la Europa de los Estados".

"Tenemos que estar hoy presentes más que nunca. Porque esa Europa que se construye con lentitud, con paso lento, es el lugar en el que los vascos, un pueblo pequeño, tenemos que compartir nuestro hogar con otras naciones. No podemos ser

Josu Jon Imaz EAJren EBBko lehendakariak Sabino Aranaren heriotzaren 101. urteurrena gogoratzeko ekitaldian baieztatu zuen "pertsona hau izan zen bere garaietatik gaurko egunera arte herri honetan mantendu den euskal sen abertzalearen sortzailea eta orain guk jarraitzen dugu Aranaren gogo berarekin".

Imazek hasiera eman zion bere hitzaldiari Xabier Arzalluzek 1995ean esan zituen hitzak gogoratuz. Une hartan Arzalluzek esan zuen "EAJ, gizakiek egindako zerbait den aldetik, handitasunak, miseriak , ausardiak eta konbultsioak, banaketak, beldurrak eta uzteak izan ditu.... Sabino eta bere Alderdirik gabe ezinezkoa litzateke euskal historia idaztea. Egiteko dugun lana Aranak bere herriarekiko zuen pasioa transmitititzea da baina era berean esperientzia hau maitasun kritikoz aztertzea. Ezin gara iraganari lotuta egon, orain aldira eta gerora ere egokitu behar dugu bere ideia eta berak sortu zuen tresna". "Uste dut berba hauek gaurkotasun osoa dutela" baieztatu zuen Josu Jon Imazek.

Buruzagi jeltzaleak bere hitzaldiarekin jarraitu zuen Euskadi aberriaren eraikitzearen gaineko aipamena eginez" orain ere baieztatzen dugu herri hau bere bizitza propioa eraikitzen ari dela eta lortu lortuko duela. Lehenengo eta behin, aberri bat osatzen dugulako. Ziburu, Baxenafarra, Lapurdi, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroa herrialdeek osatutako aberria hain zuzen. Bigarrenik, nazioek beren eraikitze prozesurako eskubidea dutelako hiritarren borondate askea errespetatua. Eta, hirugarrenik, herri honek bizitza propio hori lortzeko borondate irmoa duelako".

"Gogoratu nahi ditut Sabino Aranak eman zizkigun ideia nagusiak" esan zuen Imazek. "Lehenengoa, abertzale egiten gaituen hura: Euskadi aberria da. Sabinoren bigarren ideia bere gizatasuna izan zen eta bere garaiko korronte modernoekiko atxikimendua XIX. mendeko Europako mugimendu nazionalistekin bat egiten du. Euskadin egokitu zuen Europan indarrean zegoen aberri-printzipioa. Baina, ez zen bere euskal abertzaletasunean geratu eta nazioarteko elkartasuna praktikan jarri zuen lehenengoetariko abertzalea izan baitzen, eta hirugarrenik, Sabino Arana ekintzaile eta bultzatzaile sutsua da".

"Sabino iraultzailea da -gaineratu zuen Josu Jon Imazek- Estatuaren botere egiturak azpikoz gora jarri nahi ditu , instituzio zentralistek nahi dituzten menderapen jarreren aurka jartzen da zabal-zabalik. Bai politikoen aurrean bai eta kultural eta

Lore-eskaintza Sukarrietako hilerrian



ajenos a ese proceso. Y cada paso, por pequeño que sea, supone más Europa, y menos España y Francia. Necesitamos una Europa que avance en su construcción, para que Euskadi pueda encontrar su unión futura entre Iparralde y Hegoalde".

Por último, el presidente del EBB mencionó que "debemos construir, en clave de futuro, nuestra nación día a día, todos y cada uno de los días, desde las instituciones, desde el Partido y desde la sociedad civil. Apostando por una nación vasca abierta y tolerante. Comprometidos firmemente en la defensa de los derechos humanos y libertades de todas las personas. Convencidos de un europeismo que irá paso a paso, a veces más despacio de lo que quisiéramos, debilitando los estados-nación clásicos, diluyendo fronteras y abriendo camino a una nación vasca unida en una Europa común. Conscientes de que el éxito de la propuesta de Nuevo Estatuto Político pasa por buscar firmes alianzas con los sectores sociales que, desde el rechazo a la violencia, creen en la capacidad del pueblo vasco para decidir su futuro. En esa tarea el ejemplo de los discípulos de Sabino Arana nos será de imprescindible referencia. Creo que ésta es la verdadera herencia del fundador del Partido Nacionalista Vasco".

Imaz, concluyó su intervención evocando a la figura de Jesús Insausti "Uzturre", "Es obligado que la organización política –subrayó Uzturre- a la que él dio orientación celebre su recuerdo, pero como vascos y como demócratas estamos obligados a procurar que la figura de Sabino Arana y Goiri se afirme con la significación que le corresponde, de la misma manera que Martí y Rizal, Bolívar y San Martín, Washington y Juana de Arco, Masaryk y Gandhi, ostentan una significación especial dentro de su patria respectiva".



Miembros del EBB en el homenaje a Arana el 28 de noviembre

intelektualean aurrean ere. Aginte zentralistaren aurka, parte hartze politiko hurbilago, horizontalago eta demokratikoagoa proposatzen du. Eta, guzti hori orain dela 110 urte".

EBBren lehendakariak gogoratu zuenez "Arana talde gutxituen defendatzaile sutsua izan zen, esklabotzaren kontrako ekintzailea, errukirik gabe egin zuen europar kolonialismoaren aurka, eta Europa osoa Hego -Afrika herrialdea Boer ala ingelesen eskuetan egon behar zuen eztabaidatzen ari zenean, Sabinok zuluek beren herriaren jabe izateko zuten eskubidea aldarrikatzen zuen. Arrazistatzat jo zuten baina bere garaikideek ez lukete Sabinoren gizatasunarekin alderaketarik jasango. Nork dio arrazista izan zela? Canovas del Castilloren jarraitzaileek, garai hartan Cubako esklabotza defendatzen zutela eta afrikarren gutxiagotasunaz idazten zutela?

Josu Jon Imazek Jose Antonio Agirre eta Manuel de Irujo ere aipatu zituen, hauexek izan zirela Aranaren ideien jarraitzaile finak. "Sabinoren onena, zalantzarik gabe, bere ondorengoetan ikusten dugu. Hauen eredua da Sabino Aranaren benetako jaraunspena. Agirre eta taldekoentzat zalantza ez zegoen Europa bat edo bestearen artean, estatuen Europa eta Europa-ezaren artean baizik. Eta Estatuen Europa onartu zuten". "Gaur inoiz baino gehiago, bertan egon behar dugu. Hain geldo, urrats txikiz eraikitzen ari den Europa baita euskaldunok, herri txiki hau osatzen dugunok beste nazio batzuekin partekatu behar dugun espazioa. Ezin gara prozesu horretatik urrun egon eta urrats bakoitzak, txikiena bada ere, Europa gehiago ekartzen digu eta Espainia eta Frantzia gutxiago. Bere eraikitze prozesuan aurrera egingo duen Europa behar dugu, Euskadik Iparralde eta Hegoaldearen arteko batasuna lor dezan".

Azkenik, EBBko lehendakariak esan zuenez "gure aberria etorkizunari begira eraiki behar dugu, den-denok eta egunero, instituzioetatik, Alderditik eta gizartetik bertatik ere. Euskal aberri ireki eta toleranteearen alde eginez. Pertsona guztiei sor zaien giza eskubide eta askatasunekiko konpromiso sendoa hartuta. Urratsez urrats garatuko den Europaren alde nahiz eta sarritan guk nahi baino geldoago abiatu, estatu nazio klasikoak ahulduz, mugak deseginez eta Europa batuan kokatutako euskal aberri indartsuari bidea zabalduz. Jakin badakigu Estatutu Politiko Berriaren arrakasta lortzeko gizarte sektoreekiko aliantza sendoak bilatu behar ditugula, hauek bortxakeria gaitzetsiz, euskal herriak bere etorkizuna erabakitzeko gaitasuna dutela sinesten dute. Lan horretan berebiziko laguntza emango digu Sabino Aranaren ondorengoek eskaintzen diguten eredua. Hauxe da benetan Euzko Alderdi Jeltzalearen sortzaileak utzitako benetako ondarea".

Imazek bere hitzaldia amaitu zuen Jesús Insausti "Uzturre" gogora ekarriz "Derrigorrezkoa da berak gidatutako alderdiak gogora ekartzea, baina euskaldun eta demokrata garen aldetik ahalegin guztia egin behar dugu Sabino Arana Goirik dagokion garrantzia har dezan, Martí eta Rizal, Bolívar eta San Martín, Washington, Juana de Arco, Masaryk eta Gandhi pertsonaia ospetsuek beren herrietan erdietsi duten modu berean".

# EUROPA, EAJren ETORKIZUNERAKO ESTRATEGIA




**Delegaciones del PNV y EGI acudieron a la reunión del Partido Demócrata Europeo**

La primera reunión ejecutiva del Partido Demócrata Europeo tendrá lugar a primeros del mes de febrero en Bilbao, en vísperas del referéndum del Tratado Constitucional Europeo. El acuerdo fue adoptado durante el congreso constituyente, el 9 de diciembre en Bruselas. Según el presidente del partido italiano La Margherita, Francesco Rutelli, "hemos optado por el País Vasco en reconocimiento al empeño europeísta de sus líderes y para apoyar el compromiso demostrado por sus representantes".

Rutelli añadió que "pocas ciudades como Bilbao, países como Euskadi y partidos como el PNV conjugan la profunda defensa de la identidad y memoria históricas con una inequívoca apuesta europeísta. El País Vasco es sin duda uno de los ejemplos europeos de tradición e innovación".

Siete son los partidos cofundadores del PDE. Además de EAJ-PNV, lo conformarán inicialmente Democracia y Libertad –Margherita (Italia), Unión para la Democracia Francesa (UDF, Francia), Partido Laborista (Lituania), Movimiento Ciudadano para el Cambio (MCC, Bélgica), Vía de Cambio (República Checa) y Nuevos Horizontes (Chipre). Ante sus delegaciones Imaz reivindicó para el nuevo partido europeo tanto la bandera del federalismo europeo como la herencia histórica de los padres de Europa: "Ni Aznar, ni Berlusconi son los herederos de la utopía europeísta que propugnaron Schuman, De Gasperi o Adenauer".

Respecto al espacio político del PDE, Imaz dijo que "no somos ni conservadores ni socialistas. Propugnamos una economía de mercado, pero no un mercado sin reglas, sino una economía social de mercado con mecanismos que aseguren la cohesión, la solidaridad y la justicia social".

Europako Alderdi Demokrataren lehen bilera Bilbon izango da datorren otsailaren hasieran, Europar Konstituzio Itunari (EKI) buruzko erreferendumaren bezperetan. Erabakia EADren osatzeko biltzarrean hartu zen, Bruselan. Francesco Rutelli Margherita alderdi italiarraren presidentearen esanetan "Euskal Herrian egitea erabaki dugu bertoko buruzagiek Europaren alde egin duten ahalegina kontuan hartzeko eta bere ordezkariek erakutsitako konpromisoaren alde egiteko".

Rutellik erantsi zuenez "gutxi dira Bilbo moduko hiriak, Euskadi moduko herrialdeak eta EAJ moduko alderdiak, norberaren nortasuna eta memoria historikoaren aldeko defentsa egiteaz gainera, batere zalantzarik gabe apustu europarraz jabetzen direnak. Euskal Herria, dudarik gabe, tradizioa eta berrikuntza elkartzen duten europar adibideetariko bat da".

Zazpi dira alderdi europar berri honen sortzaileak: EAJz gainera, Demokrazia eta Askatasuna – Margherita (Italia), Frantziako Demokraziarako Batasuna (UDF, Frantzia), Alderdi Laborista (Lituania), Aldaketarako Mugimendu Hiritarra (MCC, Belgika), Aldaketarako Bidea (Txekiar Errepublika) eta Horizonte Berriak (Txipre). Guztien ordezkarien aurrean Imazek EAD alderdiarentzat aldarrikatu zituen europar federalismoaren bandera eta Europa ideiaren sortzaileen ondarea: "Aznar eta Berlusconi ez dira Schuman, De Gasperi edo Adenauerrek amestu zuten europar utopiaren ondorengoak"

EADren eremu politikoari buruz, berriz, Imazek ezarri zuen: "Ez gara kontserbadoreak, ezta sozialistak ere. Merkatu-ekonomiaren alde egiten dugu baina gurea ez da araurik gabeko merkatua, kohesioa, elkartasuna eta justizia soziala bermatzeko tresnak dituen gizarteko merkatu-ekonomia baino".

## Posición favorable de la Asamblea Nacional

El congreso constituyente del PDE se produjo apenas seis días después de que la Asamblea Nacional de EAJ-PNV acordara posicionarse a favor del Tratado Constitucional Europeo (TCE). Se dio así por terminado el proceso interno iniciado meses atrás con la recopilación distintas aportaciones, la elaboración en el seno de la Comisión de Exteriores de un dictamen, su análisis y aprobación por el EBB y, finalmente, el traslado a la Asamblea Nacional para su deliberación definitiva.

Los principales argumentos de la Asamblea Nacional para posicionarse a favor del TCE fueron los siguientes:

- EAJ-PNV, cuya razón de ser es la consecución de una Euskadi libre y dueña de su futuro, es un partido profundamente europeísta desde sus propios inicios. De hecho participó, en 1916, en la Conferencia de las Nacionalidades de Lausana y Euzkadi-Europa fue el lema del Aberri Eguna de 1933, veinticuatro años antes del Tratado de Roma.

- La estrategia política del lehendakari Aguirre propugnaba la construcción nacional de Euskadi en una Europa moderna, abierta y solidaria. La Ponencia Política de Iruña (1977) hizo suya la Doctrina Aguirre.

- EAJ-PNV apoyó el Acta única Europea (1986) y la Asamblea de Zestoa (1987) afirmó que "el PNV ratifica su vocación europea". También mostró su apoyo a los tratados de Maastricht (1991), Ámsterdam (1997) y Niza (2001), porque suponían "un paso adelante en la construcción de Europa".

- El nuevo TCE que se propone no es el que EAJ-PNV hubiera deseado, pero es un avance respecto a los tres anteriores.

- Ante las conocidas reivindicaciones de EAJ-PNV (participación europea, demarcación electoral y oficialidad del euskera) el impedimento no está en Bruselas, sino en Madrid y Paris.

- Al margen de los vínculos culturales, lingüísticos y socioeconómicos, el único Derecho Común vigente en el conjunto de la Comunidad Autónoma, Navarra e Iparralde es el Derecho de la Unión Europea.

- Un partido europeísta como EAJ-PNV, que busca su lugar como nación en Europa y su reunificación nacional en un espacio sin fronteras, es consciente de que la construcción de Europa es un proceso evolutivo y un objetivo estratégico de futuro.

## Aberri Batzarren baiezko jarrera

EADren kongresua abenduaren 9an izan zen, EAJren Aberri Batzarrak EKIren aldeko erabakia hartu eta sei egunetara. Honela eman zitzaion amaiera hainbat hilabetez iraun duen barne-prozesuari. Hau da, mailaz maila, hainbat ekarriren dokumentu-bilketa; Kanpo Arazotako Batzordearen eskutik burututako txostena; ondorengo azterketa eta onespena EBBren aldetik eta, azkenik, Aberri Batzarraren eztabaida eta behin betiko erabakia.

Aberri Batzarrak EKIren alde erabakitzeko kontuan izandako arrazoirik garrantzitsuenak honako hauek izan ziren:

- EAJ, etorkizunaren jabe izango den Euskadi askea helburutzat duenez gero, sortze beretik da erabateko alderdi europarzalea. Izatez, 1916an parte hartu zuen Lausanako Nazioen Biltzarrean eta Euzkadi-Europa izan zen 1933ko Aberri Egunean erabili zuen leloa, Erromako Ituna baino 24 urte lehenago.

- Agirre lehendakariaren estrategia politikoa Euskadiren nazio-eraikuntza aldarrikatzen zuen, Europa moderno, ireki eta solidarioan. Iruñeko (1977) Txosten Politikoa Agirreren Doktrinaz jabetu zen.

- EAJk Europako Agiri Bakarra (1986) onetsi zuen eta Zestoako Batzarrak (1987) adierazi zuen: "EAJk bere europar zaletasuna berresten du". Era berean, EAJk onetsi zituen Maastricht (1991), Amsterdam (1997) eta Nizako (2001) itunak "Europaren eraikuntzan aurrerabide direlako".

- Orain proposatzen zaigun EKI berria ez da EAJk nahi lukeena baina bai aurreko hirurak hobetzen dituen aurrerabidea.

- EAJren aldarrikapen ezagunen aurrean (Europan parte hartu beharra, hautes-barrutia eta euskararen ofizialtasuna), eragozpenak ez daude Bruselan, Madrilen eta Parisen baino.

- Izan badiren kultura, hizkuntza, gizarte eta ekonomia arloko harremanez aparte, Euskal Autonomia Erkidegoak, Nafarroak eta Iparraldeak elkarrekin duten legeria bateratu bakarra Europako Batasunaren legeria da.

- EAJ, europarzale den aldetik eta Europako nazioetariko bat izateaz gainera mugaz gainetikako nazio-batasuna lortu nahi duenez gero, jakin badaki Europaren eraikuntza mailaz mailako prozesua dela eta etorkizunerako helburu estratejikoa.

Josu Jon Imaz EAJren ordezkariekin batera Bruselan



# 5 BATZOKIS
# CENTENARIOS

Los Batzokis representan un importante resorte en la expansión e implantación de EAJ-PNV en todo Euskadi y han sido uno de los principales motores en los que se ha apoyado el Partido para difundir la idea nacionalista, el euskera y todo lo referente a nuestro patrimonio como pueblo.

A lo largo de este año, cinco de nuestras más de 200 sedes han cumplido cien años: "Juventud Vasca" en Bilbao, el "Batzoki-Deustoarra", "Bergarako Euzko Batzokija" y los "Centros Vascos" de Donostia y Errenteria.

Cinco Batzokis con vida propia. Cada uno de ellos un mundo, una historia y mil recuerdos y es que cien años de trabajo en esta dirección supone por sí solos un ejemplo de adhesión a una idea y una capacidad de resistencia extraordinaria.

## Primeros batzokis de Bizkaia

El 14 de febrero de 1904 se inauguró el domicilio social de la Sociedad de Juventud Vasca, situado en el segundo piso del número 12 de la calle Santa María de Bilbao. Se iniciaba así una nueva etapa en la organización juvenil del nacionalismo vasco.

El día de la inauguración la prensa nacionalista dio cuenta de las nuevas esperanzas que hizo concebir la aparición de una sociedad "seria y potente como la juventud vasca".

Abarrotados balcones en la sede de Bidebarrieta (31/07/1909)




La jornada festiva de la inauguración comenzó a las diez de la mañana con una misa en Begoña "repleta de jóvenes patriotas y gran número de fieles". La misa de Grieg y el Credo de Arriola, fueron interpretados por un coro que contaba con la participación del tenor Martín y la dirección del maestro Intxausti. Los sacerdotes Albizuri y Goenetxea oficiaron la misa, en la que, durante la consagración, se interpretó el Gernikako Arbola. Tras la comida, hacia las ocho y media de la tarde, fue descubierto un retrato de Sabino Arana.

Cinco meses más tarde, el 10 de julio de 1904, aunque según recogió la prensa nacionalista de aquella época, existieron

Batzokiak dira euskal abertzaleen benetako topagune eta berebiziko garrantzia izan dute beti Euskadi osoan EAJren zabalkunderako. Hauexek izan dira Alderdiak abertzaletasunaren ideia, euskara eta herri gisa dugun ondare kulturala zabaltzeko erabili izan dituen motorerik garrantzitsuenetarikoak.

Aurten, 5 Batzokik ehun urte bete dituzte: Bilboko "Juventud vasca", "Batzoki-Deustoarra", "Bergarako Euzko Batzokija" eta Donostiako eta Errenteriako "Centros Vascos" direlakoak.

Indar propioa duten bost Batzoki. Bakoitzak inguruan mundu bat duelarik, historia bat eta hainbat eta hainbat gogorapen ehun urte luze hauetan.

## Bizkaiko lehenengo batzokiak

1004ko otsailaren 14an inauguratu zen Sociedad de Juventud Vasca elkartearen egoitza, Bilboko Andre Maria kaleko 12.ean.

Inaugurazio egunean prentsa abertzaleak "Juventud Vasca elkartea moduko talde serio eta indartsua" sortzeak ekarri zituen itxaropenen berri eman zuen.

1904 urteko otsailaren 14ko Patria egunkariak aditzera eman zuen bezala: "asko dira jadanik eta gero eta gehiago izango dira laster; Sabino Aranak Euskeldun Batzokijan Juventud Vasca elkarteak dituen kideekin hasi izango balitz, Euskeria osoa hunkituko lukeen". Aste bete beranduago, Euskalduna astekariak baieztatu zuenez inaugurazio hark erakusten zuen "gure gizartearen parte hartzailerik aktiboena, hau da, gazteri gogotsua eta gure ideien geroa, ez dago lotan. Hortik urrun, herri hilen moteltasun atrofiatzailea astindu nahi du eta, euskaldun fin guztien onespena duela, gogotsu ekin nahi dio bizitzari oztopo eta zailtasun guztiak gainditzu."

Sociedad de Juventud Vasca elkartearen egoitza inauguratzeko ekitaldiak goizeko hamarretan hasi ziren Begoñako santutegiko mezarekin "euskal abertzalez eta sinestunez betea". Abesbatzak, artean Martin tenorea izanik eta zuzendaria Intxausti maisua, Grieg-en meza eta Arriolaren Kredoa abestu zuen. Meza emateko abadeak Albizuri eta Goenetxea izan ziren eta sagarapenean Gernikako Arbola entzun zen. Bazkalostean, arratsaldeko zortzi eta erdiak inguruan, Sabino Aranaren irudia estalgabetu zen.

Bost hilabete beranduago, 1904ko uztailaren 10ean hain zuzen eta garai hartako prentsa abertzaleak esan zuen bezala, kanpotiko oztopoak eta barrualdeko etsipenen bat izan arren, "Batzoki Deustoarra" izeneko "elkarte abertzale berria" eratzea lortu zen. Hortaz, Deustua da egoitza abertzalea izatea lortu zuen lehenen-goetariko herria, Sabino Arana hil eta hilabete batzuk beranduago.

Patria, egunkariak esan zuen Batzoki hau 1904 hartako uztailaren 25ean inauguratu zela eta urte bereko irailean Deustuak udal ordezkaria izendatu zuen hamar baino abertzale gehiago izateagatik.

entorpecimientos exteriores y alguna desilusión interna, se fundó la "nueva sociedad patriótica" llamada "Batzoki Deustoarra".

Según el periódico Patria, la inauguración del Batzoki de Deusto se realizó el lunes 25 de julio de 1904 y ya en septiembre aparece el barrio bilbaíno en la lista de los veinte pueblos de Bizkaia que, por contar con más de diez nacionalistas, habían designado delegado municipal, recayendo esta responsabilidad en Benito de Letamendia y Arteaga.

## Los pasos iniciales del nacionalismo vasco en Gipuzkoa

La existencia de diferentes núcleos nacionalistas en Gipuzkoa es conocida desde finales del siglo XIX y los primeros Batzokis se constituyeron en 1903: Donostia, el 3 de abril, Errenteria, 9 de octubre y Bergara, el 11 de diciembre.

Salvo en algún caso aislado, ninguna de las inauguraciones de estos Batzokis se vio libre de polémica. "La Voz de Guipúzcoa" denunció que en la inauguración de la Sociedad de Euzkadi de Renteria se produjeron gritos subversivos y varios detenidos. En Bergara, tras demorarse el registro en el Gobierno Civil del reglamento del Bergarako Euzko Batzokija, el ayuntamiento rechazó la cesión del salón municipal para los actos inaugurales.



Bazkaria Bergarako Batzokian (1928/03/19)

Y es que el comienzo para la implantación de una nueva ideología política tuvo que constituir, evidentemente, una etapa muy dura y controvertida. Bergara, por ejemplo, en aquellos años de finales del siglo XIX y comienzos del XX, se encontraba, prácticamente en manos de una burguesía que mandaba y copaba puestos relevantes en el Ayuntamiento. Los "jauntxos" de la Villa, según se desprende de actas municipales y crónicas de la época, imponían sus criterios con firmeza sobre una sociedad trabajadora. Pero no menos firmes y fuertes mostraron ser aquellas primeras personas que, en una época de políticas tímidamente emergentes, se atrevieron a sembrar la semilla cuyos frutos, cien años después, se traducen en el fuerte arraigo del nacionalismo.

La difusión de las ideas nacionalistas vascas fue muy dura durante los primeros años pero estos cinco Batzokis sirvieron como importante elemento dinamizador, tanto, que hoy en día son mas de 200 los Batzokis repartidos por toda Euskadi.

*Saioa Zubizarreta*

Lehenengo ordezkari hau, Benito Letamendia Arteaga jauna izan zen.

1905 urteko maiatzaren 14an, Deustuko Batzokian ikurrina altxatu zen lehen aldiz eta hain jai handia egin zen, inaugurazio ofizialtzak har daitekeela. Antonio Mentxaka jauna zen bertako lehendakaria eta Ascensio Artetxe eta Teodoro Olagorta idazkaria eta bokala hurrenez hurren.

Ekitaldian izan ziren Portugalete, Barakaldo, Bilbo eta Algortako ordezkariak besteak beste. Egoitza eta ikurrina bera ere, Gerardo Elorriagak bedeinkatu zituen. Sabino Arana, bi urte lehenago hila, berbeta guztietan izan zen eta abertzale guztien batasunaren beharra aipatu zen etengabe "gure Euskadiren zoriontasunaren alde lan egiteko".



Batzoki de Deusto en 1912

## Euskal abertzaletasunak Gipuzkoan eman zituen lehen urratsak

Gipuzkoako gune abertzaleak XIX. mende amaieratik ezagunak dira. Sabino Arana 1903 urte amaieran hil ondoren euskal abertzaletasunaren eratze organikoa hasi zen, hau da, Uri Erakundeen eta Batzokien sorrera izan zen.

1904an eratu ziren Gipuzkoako lehenengo Batzokiak; Donostia, apirilaren 3an, Errenteri, urriaren 9an eta Bergara, abenduaren 11an.

Garaiko egunkarien arabera, baten bat izan ezik, Batzoki guztien inaugurazio egunetan sortu zen eztabaida. "La Voz de Guipúzcoa" egunkariak salatu egin zuen Sociedad de Euzkadi de Renteria izenekoaren inaugurazio egunean oihu iraultzaileak izan zirela eta ondorioz, pertsona batzuk atxilotu egin zirela. Bergaran, bestalde, Bergarako Euzko Batzokijaren araudia onartzeko prozesua luzatu ondoren, udalak ez zuen udaletxeko aretoa utzi inaugurazio ekitaldiak ospatzeko.

Izan ere, oso aro latz eta eztabaidagarria izan zen ideologia politiko berria zabaldu zeneko aro hau. Bergaran, adibide bat emateko Udaletxean posturik garrantzitsuenak burgesiaren esku zeuden XIX. mende bukaera eta XX. mende hasiera hartan. Herriko jauntxoek beren irizpideak ezartzen zizkioten gizarte langile eta otzanari. Hala eta guztiz ere, abertzaletasunaren hazia ereintzen ausartu ziren haiek ere ez ziren ahulagoak izan. Ehun urte geroago, haziak bere fruitua eman du eta hor dugu Batzokiek duten indar eta sustraia.

Gogorra izan zen benetan abertzaletasun ideiaren zabalkundea lehenengo urte hauetan baina bost Batzoki hauek berebiziko lana egin zuten eta emaitza hor dago.

*Saioa Zubizarreta*

# SASETA GOGOANGARRIA

Como en años anteriores homenajeamos a nuestro gudaris. A aquellos, que alistados en el Ejército Vasco, lucharon y arriesgaron su vida por Euskadi. Pero, hoy, queremos recordar y homenajear al comandante Cándido Saseta Etxeberria, guía, ejemplo y amigo de los gudaris, ya que celebramos el centenario de su nacimiento.

Saseta, era un militar que no deseaba la guerra. Hizo la carrera solamente, para poder ser miquelete de la Diputación de Gipuzkoa. Mientras tanto llegó a ser capitán de Intendencia en Marruecos, en el campamento Villa Sanjurjo de Alhucemas.

Saseta nació en Hondarribia el 13 de diciembre de 1904. A pesar de que hizo sus estudios y su carrera militar en castellano, Saseta nunca despreció ni a su pueblo ni a su lengua. Todo lo contrario. Aunque vivía entre militares nunca disimuló ni su vasquismo ni su abertzalismo. En la puerta de su tienda del campamento de Marruecos se podía leer esta inscripción:

Emen sartzen dana, Euzkadin da.
euzkalduna bazera, mintzatu euzkaraz;
eta abertzale bazera, deadar zazu nerekin:
Gora Euzkadi azkatuta!

Saseta, aspirante a miquelete, durante la República estaba destinado a la Intendencia de Vitoria-Gasteiz. Sin embargo, el alzamiento franquista le sobrevino estando en Donostia. Pero en aquella encrucijada Saseta tuvo muy claro a favor de qué y de quienes se tenían que posicionar: a favor del gobierno legítimo y de Euskadi. Inmediatamente se puso a las órdenes del Gobierno Vasco y de su lehendakari José Antonio Agirre. Era imprescindible la colaboración de Saseta, ya que no abundaban militares republicanos y, menos los que estuvieran dispuestos a luchar bajo las órdenes de las autoridades vascas.

José Antonio Agirre no dudó, en ningún momento, en nombrar a Saseta comandante y responsable del cuartel de gudaris del Santuario de Loyola. Como bien señala Manuel de Irujo, "el capitán señor Saseta, hombre de tantas virtudes como escasa apariencia: muy preparado, leal, de gran valor personal, de serenidad pasmosa, tenaz en su empeño, duro en la pelea, de una resistencia física extraordinaria, con capacidad de trabajo difícil de superar, cuya personal simpatía y afable trato le granjeó las simpatías de todos, dándole una autoridad y un



Kandido Saseta

Kandido Saseta Etxeberria 1904ko abenduaren 13an jaio zen Hondarribian, Viteri eskoletako maisu baitzen bere aita don Anbrosio. Mikelete izateko asmoz egin zuen militar karrera Avilako akademian. Marokon eta Gasteizen Intendentzia kapitain izatera heldu zen. Faxisten oldarraldiak Donostian harrapatu zuen.

Saseta euskaltzale eta abertzale zen eta ez zuen inoiz bere euskaltzaletasunik eta abertzaletasunik ukatu, ezta militarren artean ere. Marokon kanpamentuko bere etxolako sarreran hitz hauek irakur zitezkeen: "emen sartzen dana Euzkadin da. Euzkalduna bazera, mintzatu euzkeraz; eta abertzalea bazera, deadar zazu nerekin: Gora Euzkadi azkatuta".

prestigio que fueron base de la organización impuesta en pocos días a los muchachos alistados en aquellas milicias".

Saseta fue uno de los creadores de la línea que, desde Lekeitio hasta Otxandio, logró frenar el avance de las brigadas nacionales. Varias veces herido, luchó con bravura en las Ventas de Zarate, Belkoain, Ernio y Legutio. Como reconoce Koldo Mitxelena, "Saseta se daba cuenta de que no éramos capaces de hacer algo tan sencillo como dejar que se acercaran y empezar a disparar. Saseta contribuyó a que hubiera un cierto espíritu militar, y esto logró a costa de correr riesgos mucho mayores de los que le correspondían por su rango". Cándido Saseta se ofreció ir al frente de Asturias para demostrar la solidaridad y apoyo de los vascos y del Gobierno de Euskadi. Allá acudió con los batallones Amayur, Euzko Indarra e Indalecio Prieto. Y allí, en Aceres, murió alcanzado por una bala el 23 de febrero de 1937.

Las honras fúnebres se hicieron en la parroquia de San Vicente de Abando. Celebró la misa don Julen Ikaza, Asistieron a los funerales, además de numeroso público y compañeros, el presidente del gobierno vasco José Antonio Agirre, los consejeros Eleodoro de la Torre y Telesforo Monzón, las autoridades del PNV, jefes de los gudaris y representantes de las instituciones bizkainas. Una emocionada despedida, que como reseñó Eguna "la gente lloraba nada más escuchar el nombre de Saseta".

Veinte años más tarde, en el Congreso Mundial Vasco celebrado en París el año 1956, José Antonio Agirre pronunció unas palabras de recuerdo para Saseta: "En su memoria permitidme - decía el lehendakari- que diga que entre los militares que nos rodeaban éste era un hombre en quien yo tenía la máxima confianza por su absoluta lealtad, no solamente a lo que nosotros representábamos, sino a la tierra de sus padres".

Precisamente, fue la ikurriña de la compañía Beti Aurrera la que enarboló el batallón Gernika, bajo las órdenes de Kepa Ordoki, en la Segunda Guerra Mundial en Francia. Y con esta ikurriña desfiló el Gernika en París en la celebración de la victoria sobre el nazismo. Desde el 27 de abril de 1983 permanece en la Casa de Juntas de Gernika.

Es tiempo de arrimar el hombro para que nuestro proyecto de convivencia que lidera el lehendakari Ibarretxe sea una opción ampliamente compartida y aceptada por el conjunto de la sociedad. Como siempre utilizaremos medios pacíficos y democráticos. No queremos ni tiros ni amenazas de fuerza. Y para ello, necesitamos de hombres y mujeres, que como Cándido Saseta, sean humildes, firmes, valientes, abertzales y que no se amedrentan ante cualquier dificultad y cambio.

Como cantó el bertsolari Xenpelar, "jaioko dira berriak, gura gara Euskal Herriak".

Gora Gudariak. Gora Saseta. Gora Euskadi askatuta.

*Mikel Atxaga*



Saseta beste gudari batzuekin batera

Errepublikaren alde eta Jose Antonio Agirre lehendakariaren esanetara jarri zen, beraz, lehenengo unetik, inolako zalantzarik gabe. Gudarien Azpeitiko kuarteleko buru eta komandante izendatu zuen Lehendakariak. Lehen unetik erakutsi baitzituen trebetasuna eta ausardia, Zarate, Belkoain, Buruntza, Andatza, Bidania, Ernio eta ingurumari horietan. Izan ere, berehalaxe ohartu zen erreketeak zuzenean, ezeren eragozpenik gabe, joango zirela Tolosatik Orioraino. Hala idatzi zuen Saseta hil zenean Kuireka Andonegik Eguna egunkarian: "gaztea, txikia, baña bikaña, bere irriparrezko aurpegiarekin. Gudalburu orren izena guda au sortu eta laister Euzkadiko erri guztietan oso goraldua izan zan bere gizontasun eta bikaintasunagatik. Gudari guztien itxaropen osoa beregan arkitzen zan".

Sasetaren burubidez eraiki zen Lekeitio, Kalamua, Eibar, Intxorta, Ubidea eta Otxaindio arteko guda-lerroa ere. Eta Euskadin hain beharrezkoa izanik, Asturiara joan zen, hiru konpainia hartuta, euskaldunen eta Eusko Jaurlaritzaren elkartasuna eta laguntza eskaintzera. Hainbeste gudalditan bezalaxe, "Beti aurrera" esanez hil zen bala batek jota, Aceres herrian.

Hori da Sasetak gaur ere euskaldunoi egiten digun oihua: "Beti aurrera". Hori egiten badugu egia gertatuko da Jesus Insausti Uzturreren ametsa: "Asturiasko lurrak txukatu dizu zure eusko odol gorria, Baiña askatasunaren lorea Euzkadin jaioko da".

*Mikel Atxaga*



Bendición de la Ikurriña del Batallón Saseta





## *Un beneficio compartido*

*En un escenario donde los principios de* ***igualdad*** *y* ***solidaridad*** *entre las personas se conviertan en las bases de un futuro que ya estamos construyendo.*

## Elkarrekin banatutako onura

Guztion arteko **berdintasun** eta **elkartasun** irizpideak argimutil izango dituen jokalekuan. Eta bazterketa era guztiak ezabatuko dituen jokalekuan.



**Galdetu, erantzun, iritzi, irakurri, kritika, eztabaida, informa, idatzi... ez zaite bazterrean geratu.**

*Pregunta, responde, opina, lee, critica, discute, infórmate, escribe…, pero no te quedes al margen.*

www.eaj-pnv.com

nik Ba

# EUSKADIK BEHAR ZAITU

nik Ba

## Euskadirako Estatutu berriaren euskarriak

## *Puntos básicos del nuevo Estatuto para Euskadi*

### *De igual a igual*

